

## **Lege-aholkularitzako zerbitzu berria astearteetara pasatzen da**

Arantxa Izagirre abokatuak elkartean hartuko ditu bazkideak, aurretik hitzordua eskatuta

Gipuzkoako Baso Elkarreak (GEBE) aholkularitza juridikoko zerbitzu berri bat jarri du martxan bere bazkideei laguntzeko Arantxa Izagirre abokatuaren eskutik (LEGEZ Abogados, Tolosa), eta astearteetan, 14:30etik 18:30era, hala eskatzen duten bazkideei emango die arreta, GEBEren Tolosako bulegoetan. Zerbitzua maiatzaren 3tik dago martxan. Hasiera batean, astelehenetan ematen zen hitzordua, baina hemendi aurrera astearteetan izango da.

Udal-ordenantzak, hiri-antolamenduko planak, lurretarako sarbideengatiko gatazkak, parke naturalei, bideei, fauna exotiko eta mehatxatukoei edo eskriturei buruzko era guztietako araudiak... Guri eragiten digun basogintzako edozein gai.

Lehenengo kontsulta doakoa izango da, gure bazkideengan eragina duen edozein gairi buruzkoa. Aldez aurretik hitzordua hartu beharko da, elkartean eskatuta, telefonoz (943 652 920) edo posta elektronikoz ([gipuzkoa@basoa.org](mailto:gipuzkoa@basoa.org)).

Hitzordua eskatzeko unean, adierazi, mesedez, jorratu beharreko gaia, abokatuak gaiak prest eraman ahal izan ditzan eta elkartean astelehenetan aurrez aurreko kontsultak eraginkorragoak izan daitezten.

**GIPUZKOAKO  
BASO ELKARTEA**

---

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS  
FORESTALES DE GIPUZKOA